

ZIURTAGIRIA Tokiko Gobernu Batzarraren erabagia

Jurdana Uriarte Lejarragak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, ziurtatzen dot, 2024-07-30(e)(a)n, TOKIKO GOBERNU BATZARRAK erabagi hau hartu dauela:

4.- HELDUENTZAKO EUSKALDUNTZE ETA ALFABETATZE IKASTAROETARAKO 2024. URTERAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA ONARTZEA ETA ZABALTZEA.

Xedea

Homologaturik dauden euskaltegi edota barnetegietan, helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten Bermeoko biztanleentzako 2024. urterako dirulaguntzen eskaria egiteko orri eguneratuak eta deialdia onartzea eta zabaltzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2022ko abenduaren 19an, udal Osoko Bilkurak, Diru laguntzen Plan Estrategikoa eta Diru laguntzen Berariazko Oinarriak onartzea erabaki zuen. Erabaki horren iragarkia 2023ko martxoaren 6an argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Berariazko Oinarri horien artean, homologaturik dauden euskaltegi edota barnetegietan, helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten Bermeoko biztanleentzako dirulaguntzenak onartu ziren (I. eranskina). Bertan ageri dira dirulaguntza honi buruzko xehetasunak.

Bigarrena: Homologaturik dauden euskaltegi edota barnetegietan, helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten Bermeoko biztanleentzako dirulaguntzak eskatzeko inprimakiak eguneratu dira, euskaraz eta elebiz (II. eta III. eranskinak).

Argudioak

Lehenengoa: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikulua eta erlazionatutakoak.

Bigarrena: Lege bereko II. Xedapen gehigarriaren arabera, eskumena alkateak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E8001078E800Z6U4L6D9C6V5

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN-Idazkari akzidentala - 30/07/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/08/2024

EXPEDIENTE ::
2024IDA_ERA_0182
Data: 21/05/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E8001078E800Z6U4L6D9C6V5



dauka, baina eskumen hori 2024ko apirilaren 24ko 1886. zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak dauka eskuordetuta.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Homologaturik dauden euskaltegi edota barnetegietan, helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten Bermeoko biztanleentzako 2024. urterako dirulaguntzen deialdia eta eguneratutako eskaera-orriak onartzea eta zabaltea.

BIGARRENA: Deialdi honen publizitatea BDNS datu basean eta BAOn argitaratzea.

HIRUGARRENA: Bermeoko Udalaren webgunean deialdi hau argitaratzea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikularen arabera), Nadia NemeH Shomaly alkatearen aginduz eta oneretxiaz.

Orrri-oinean sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E8001078E800Z6U4L6D9C6V5

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN-Idazkari akzidentala - 30/07/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 01/08/2024

EXPEDIENTE ::
2024IDA_ERA_0182

Fecha: 21/05/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E8001078E800Z6U4L6D9C6V5

